

## PRENTSA OHARRA – MINGAINLUZE

### ABIAN DA MINGAINLUZE LEHIAKETA

Pasa den asteburuan jokatu dira Mingainluze lehiaketako seigarren edizioko aurrekanporaketak, umoretsu eta jendetsuak, ohi bezala. Aurreko urteetako ildoari segika, berrogeita lau taldek hartu dute parte aurrekanporaketa horietan, 3ko taldetan banatuta. Haserako berrogeita lau talde horietatik hogeita lauk egin dute aurrera, eta datorren asteburuko finalerdietan neurtuko dituzte indarrak. Finala, gogoratu, urtarrilaren 29an izango da.

“Erantzuna emanda”, “Hizki zopa” eta “Imintzioka” izan dira aurrekanporaketetan talde partehartzaileek egin beharreko frogak; talde batuk hiru frogetan euren maisutasuna erakutsi dute eta beste batzuk frogata batzuetan besteetan baino erosoago aritu dira. Edozein kasutan, talde guztiek izan dute euren abilezia erakusteko parada. Finalerdietan, Mingainluzeko beste frogata batzuk egingo dira, eta horietan ere ez dira gatza, piperra eta lehia puntua faltako, beti bezala.

Esan bezala, aurrekanporaketa saioetatik sailkatutako hogeita lau taldeek jokatuko dituzte finalerdiak datorren asteburuan: “SJM” (June Plazaola, Maitane Alustiza, Saioa Mendia), “LOS CEREBRITOS MAS TONTOS” (Oier Aseginolaza, Martin Arbulu, Telmo Arribas), “TIJUANATIKAK” (Malen Etxaniz, Aitana Lizarraga, Ibone Cecilia), “IRABAZLEAK” (Ana Sanchez, Nerea Ruiz de Gauna, Naiara Nuñez), “TXUPA TXUSAK” (Aitana Rivas, Garazi Parejo, Eider Fernandez), “KITIPASA” (Unai Urkiola, Markel Aguirrezabala, Paul Barrenetxea), “LFF” (Ane Villarino, Nora Blazquez, Ane Arburua), “MINGAINMOTZ” (Aiur Hurtado, Manex Yurrebaso, Aimar Lazaro), “SUPER CRACKAK” (Andoni Delgado, Markel Cantero, Jairo Herrera), “TALDEA” (Xabi Marin, Beñat Dominguez, Markel Lopez), “LOS MEJORES PEORES” (Markel Adanez, Aritz Legorburu, Andoni Aizpeolea), “BURUGABEAK” (Marwa El Ouafai, Marta Carrillo, Klara Garin), “MAX AND HENRY” (Ioritz Uli, Julen Armaolea, Beñat Ezpeleta), “SPARKY” (Beñat Aiastui, Iker Esnal, Jakes Izagirre), “BASATIAK” (Mikel Aiastui, Oier Etxaniz, Ander Berasaluze), “AOZ” (Aiur Lertxundi, Zaina Qourchi, Olaia Mediavilla), “TXERRIKUMIXEK” (Oier Plazaola, Oinatz Urbegain, Ibai Badiola), “MOLONGIAK” (Julene Urmeneta, Saioa Carranza, Nahiane Larraza), “EZINA EKINEZ EGINA” (Veronica Gonzalez, Ane Garmendia, Ariane Muñoz), “ONENAK” (Ane Bilbao, Aisting Clarke, Iraitz Aramendi), “CRASH BANDICOOT” (Itziar Zabaleta, Garazi Aranburu, Asier Gabilondo), “GAINZURITARRAK” (Irene Salegi, Maitane Peña, Leire Gonzalez), “LEONES DE MONTEPINAR” (Ibon Tome, Aritz Aberrieta, Jari Garcia) eta “REALA” (Manex Larrañaga, Imanol Inza, Gorka Murua).

Datorren asteburuko saio biak, eta baita finala ere, irekiak dira, ez da sarrerarik ordaindu beharrik eta nahi duena inguratu daiteke Labeaga aretora partehartzaileen abilezia bertatik bertara jarraitzera. Saio guztiak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira. Azken saioan, urtarrilaren 29an, aurtengo Mingainluzen parte hartu duten gaztetxo guztientzat merienda ederra egongo da Labeaga aretoan bertan, finalaren amaieran. Horrez gain, talderik onenek sariak ere jasoko dituzte.